

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 13/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 11koa. Aldatzea ekainaren 1eko 318/2009, abenduaren 15eko 810/2014 eta otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduak, hurrenez hurren onesten dituztenak 189, 270 eta 720 ereduak**

Ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduaren bidez 189 ereduak onetsi zen (balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitorpenarena); abenduaren 15eko 810/2014 Foru Aginduaren bidez, berriz, zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga berezia. Atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena; bukatzeko, otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduaren bidez, 720 ereduak onetsi zen (atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitorpena). Foru arau horiek aldatu badira funtsean izan da gainerako zerga administrazioekin informazio truke egokia errazteko eta mantentzeko beharrezkoak diren arau erreferentziak eguneratzeko eta egokitzapen teknikoak egiteko, eta, ondorioz, zerga kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 189, 270 eta 720 ereduaren informazio aitorpenari aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea 318/2009 Foru Agindua ekainaren 1ekoa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren Foru Agindua. Honen bidez, balio, aseguru eta errenten inguruko urteroko informazio aitorpenaren 189 ereduak onartzen da, bai eta eredu horren barruko orrien orde ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio ekainaren 1eko 318/2009 Foru Aginduari:

Bat. Hirugarren artikulua aldatu da, honela idatzita geratuko da:

“Hirugarrena. Zehaztu beharreko eragiketak.

Bat. 189 ereduak aurkeztu beharra duten zergapekoetarik aurreko artikuluko 1. idatz zatian aipatzen direnek, foru agindu honen eranskinetan ematen diren zehaztasunen arabera, ondoko datu hauek eman beharko dizkiote zerga administrazioari:

a) Abenduaren 31n erakunde juridikoen kapital sozialeko edo funts propioetako akzio edo partaidetzak, edo kapital propioak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren balioak -kasu batean zein bestean merkatu antolatuetan negoziatuak- dituzten pertsona edo erakunde titularren izen-abizenak edo sozietate izena edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Titular gisa dituzten akzio, partaidetza edo balioen kopurua eta mota.

c) Kontu, eragiketa eta finantza-aktiboen berri emateko egin beharra arautzen duen abenduaren 111/2008 Foru Dekretuko lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz kalkulatu balioa.

Bi. 189 eredua aurkeztu beharra duten zergapekoetarik aurreko artikuluko 2. idatz zatian aipatzen direnek, foru agindu honen eranskinetan ematen diren zehaztasunen arabera, ondoko datu hauek eman beharko dizkiote zerga administrazioari:

a) Abenduaren 31n inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo funts proiektako akzio edo partaidetzak dituzten pertsona edo erakunde titularren izen-abizenak edo sozietate izena edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Titular gisa dituzten akzio eta partaidetzen kopurua eta mota eta, hala badagokie, haien konpartimentua.

c) Abenduaren 31ko likidazio balioa, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean eta berau garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraituz kalkulatu. Akzio eta partaidetzen abenduaren 31ko likidazio balioa finkatu ez bada, kalkulatu azken likidazio balioa hartuko da.

Hiru. 189 eredua aurkeztu beharra duten zergapekoetarik aurreko artikuluko 3. idatz zatian aipatzen direnek, foru agindu honen eranskinetan ematen diren zehaztasunen arabera, ondoko datu hauek eman beharko dizkiote zerga administrazioari:

a) Abenduaren 31n bizi aseguru baten hartzaille direnen izen abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, data horretako erreskate balioa jakinaraziz. Hala ere, hartzailleak ez badu ahalmenik abenduaren 31n erreskate osorako eskubidea egikaritzeko, data horretako hornidura matematikoaren balioa adieraziko da, bat etorritz Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 9ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluan bat apartatuan xedatutakoarekin, salbu eta heriotza edo baliaezintasun prestazioak edo arriskuko beste berme osagarri batzuk soilik biltzen dituzten aldi baterako aseguru kontratuak badira.

b) Dirutan, ondasun higikorretan edo higiezinetan kapital bat ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako edo bizi arteko errenta baten onuradun direnen izen-abizenak edo sozietate izena edo deitura osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Egun horretako kapitalizazio balioa ere adierazi beharko da, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarrian, bi idatz zatian, xedatutakoaren arabera.

Bizi-aseguru baten ondorioz aldi baterako edo biziarte errentak jasotzen badira, abenduaren 31n errentaren hartzaillearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira, salbu eta aseguruaren hartzaila ez bada errentaren hartzaila eta erreskate eskubidea mantentzen badu; kasu horretan, hartzaillearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira aipatutako egunean.

Aurreko paragrafoan xedatutako kasuetan, abenduaren 31ko erreskate balioa adieraziko da edo, hala badagokio, data horretako hornidura matematikoaren balioa, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

Bi. “HERRIALDEAREN KODEA” eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 78tik 79ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
78-79	Alfabetikoa	HERRIALDEAREN KODEA Aitortua egoiliarra ez bada eta ez badauka establezimendu iraunkorrik, eremu honetan beraren egoitza dagoen herrialdea edo lurraldea adierazten duten bi karaktere alfabetikoak idatzi behar dira. Herrialdeen eta lurraldeen kodeen zerrrenda abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduaren IV. eranskinean dago (ALHAO, 145. zk., 2021/12/27). Beste edozein kasutan, zuriunez bete behar da.

Hiru. "BALOREAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 81 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
81	Alfabetikoa	<p>BALOREAREN GAKOA</p> <p>Ondoko gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>Gakoa Deskribapena</p> <p>A Erakunde juridikoetako kapitalean edo funts propioetan dituzten akzioak eta partaidetzak, merkatu antolatu batean negoziatuak.</p> <p>B Merkatu antolatuaren negoziatutako kapital propioak hirugarrenei laga izanaren balore adierazgarriak.</p> <p>C Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio eta partaidetzak.</p> <p>D Bizitza aseguruak (erreskate balioa baino ez daukatena).</p> <p>Bizitza edo baliaezintasun aseguruetatik eratorritako aldi baterako errentek edo biziarteko errentek erreskate balioa abenduaren 31n badute, hori "D" gakoan jasoko da.</p> <p>E Aldi baterako edo bizi arteko errenta.</p> <p>Bizitza edo baliaezintasun aseguruetatik eratorritzen ez diren aldi baterako edo biziarteko errentek (PFEZren FAre 36.2 artikuluan aipatzen diren kapitalak ezartzea xede duten aldi baterako edo biziarteko errentak) abenduaren 31n duten kapitalizazio balioa baino ez da jasoko, zeina Ondarearen gaineko Zergari buruzko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri kalkulatu baita.</p> <p>F Erreskate baliorik gabeko bizi aseguruak.</p> <p>Gako horretan adieraziko dira, halaber, abenduaren 31n erreskate baliorik ez duten bizi edo baliaezintasun aseguruetatik datozen aldi baterako errentak edo biziarteko errentak.</p> <p>Aldi baterako aseguruak ez dira sartzen, baldin eta heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo arriskuko beste berme osagarri batzuk besterik ez badituzte barne hartzen.</p> <p>Ez da informaziorik eman beharko heriotza arriskua bakarrik estaltzen duten eta erreskate baliorik ez daukaten bizitza aseguruaren inguruan (bizitzaz bestelako arloetan jasotako arrisku osagarriak estaltzeko eragozpen izan gabe). Ez da informaziorik eman beharko aseguraturako aurreikuspen planei buruz, enpresen gizarte aurreikuspeneko planei buruz, pentsioen konpromisoak bideratzen dituzten aseguru kolektiboko kontratuei buruz, ezta mendekotasun aseguru pribatuei buruz ere.</p>

Lau. "BALORAZIOA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 108tik 123ra posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
108-123	Alfanumerikoa	<p>BALORAZIOA</p> <p>Dibisa eragiketen kasuan, eurotan aitortutako aktiboen balorea edo horien kontrabalioa jasoko da. Era berean, eragiketari lotutako partaide ugari daudenean, horietako bakoitzari egotz dakioken balorea jarriko da bakoitzean, partaidetza ehunekoaren arabera.</p> <p>"BALORE GAKOA" eremuan, 81. posizioan, "A" edo "B" bat jarri den kasuetan, kapital propioak hirugarrenei lagatzea adierazten duten akzioen, partaidetzen edo baloreen balioa kalkulatu da kontu, eragiketa eta finantza aktiboei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.</p> <p>"BALORE GAKOA" eremuan "C" bat jarri bada, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera kalkulatu da abenduaren 31ko likidazio balioa.</p> <p>"BALORE GAKOA" eremuan "D" bat jarri bada, abenduaren 31ko erreskate balioa jarriko da.</p> <p>"BALORE GAKOA" eremuan "E" bat jarri bada, abenduaren 31ko kapitalizazio balioa kalkulatu da kontu, eragiketa eta finantza aktiboei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bigarren bi xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.</p> <p>"BALIOAREN GAKOA" eremuan "F" bat adierazi den kasuetan, abenduaren 31ko hornidura matematikoaren balioa Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>108 ZEINUA</p> <p>Aipatu berri den balorazioaren emaitza 0 (zero) baino gutxiago denean bete beharko den eremu alfabetikoa; kasu honetan, "N" idatziko da. Gainerako kasuetan, eremuaren edukia hutsune bat izango da.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
108-123	Alfanumerikoa	<p>109-123 ZENBATEKOA Zenbakizko eremua, 15 posiziokoa. Gorago aipatutako balorazioaren ondoriozko zenbatekoa jarriko da. Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira. Zenbatekoak ezin du zeinurik izan (+/-), ez eta koma dezimalik ere. Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>109-121 Zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak idatziko dira. 122-123 Zenbatekoaren zati dezimala; edukirik ez badu, zeroak idatziko dira.</p> <p>Halaber, aitortu ugari daudenean, bakoitzaren balorazioa jarriko da bakoitzean, partaidetzaren ehunekoaren arabera.</p>

Bost. "BALORE KOPURUA" eremuko posizioak aldatu dira, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 130tik 146ra posizioetan egongo dira, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 189 ereduko erregistro diseinuetan, aldi berean, "BALOREEN NOMINAL UNITARIOA" eta "ZURIUNEAK" eremuei dagozkien posizioak eguneratu dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
130-146	Zenbakizkoa	<p>BALORE KOPURUA Merkatu antolatu batean negoziatutako erakunde juridikoen kapitaleko edo funts propioetako akzioen edo partaidetzen guztizko kopurua jasoko da, merkatu antolatuetan negoziatutako kapital propioak hirugarrenei lagatzearen balio adierazgarriak edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare funtseko akzioak edo partaidetzak ordezkatzeko dituztenak, aitortuak partaidetza ehuneko jakin bat badu.</p> <p>Ondorio horietarako, aitortutako balore bat baino gehiago badaude, haietako bakoitzean, partaidetza ehuneko jakin bat daukan balore guztien kopurua jarri behar da. Eremu hau beteko da bakar-bakarrik "BALORE GAKOA" eremuan, 81 posizioan, "A", "B" edo "C" jarri bada. Bi eremutan banatzen da:</p> <p>130-140 Balioen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 141-146 Balioen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
147-164	Zenbakizkoa	<p>BALOREEN NOMINAL UNITARIOA "A" gako "BALORE GAKOA" eremuan jartzen denean (2 motako erregistroko 81. posizioa, aitortuaren erregistroa), aitortuari dagozkion akzioen edo partaidetzen nominal unitarioa jasoko da merkatu antolatuetan negoziatutako erakunde juridikoen kapital sozialean edo funts propioetan. Eremu hau bi eremutan banatzen da:</p> <p>147-160 Eragiketaren nominal unitarioaren zenbatekoaren zati osoa. 161-164 Eragiketaren nominal unitarioaren zenbatekoaren zati hamartarra.</p>
165-389	—	ZURIUNEAK

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 810/2014 Foru Agindua, abenduaren 15ekoa, zenbait loteria eta apustu sariren gaineko karga berezia onartzen duena. Atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko laburpena.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 15eko 810/2014 Foru Aginduari:

Bat. "EPEALDIA" eremua gehitu da, 1 motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa) 136tik 137ra bitarteko posizioak dituena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 270 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
136-137	Alfanumerikoa	EPEALDIA Aitortzaile guztiek 0A jarriko dute.

Bi. Eremuen hauen posizioak aldatu dira, 1 motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa), foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 270 ereduko erregistro diseinuetan, honela kokatuta geratzen dira:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
138-146	Zenbakizkoa	Aitortuen erregistroak, guztira
147-163	Zenbakizkoa	SARI GUZTIEN ZENBATEKOA EDO BALORAZIOA
164-180	Zenbakizkoa	Atxikipenen edo konturako sarrerren OINARRIA, GUZTIRA
181-197	Zenbakizkoa	Atxikipenen edo konturako sarrerren ZENBATEKOA, GUZTIRA
198-437	—	ZURIUNEAK

Hiru. "HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA" eremua gehitu da, 1 motako erregistroko (aitortzailearen erregistroa) 438tik 487ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 270 ereduko erregistro diseinuetan, haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
438-487	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA Harremanetarako pertsonaren posta elektronikoaren helbidea adierazi behar da.

Hirugarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 98/2014 Foru Agindua, otsailaren 17koa, atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitorpena eta hura telematikoki aurkezteko 720 eredia onartzen duena.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio otsailaren 17ko 98/2014 Foru Aginduari:

Bat. Bigarren artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

## **"2. artikulua. 720 eredia aurkezttera behartuak.**

Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 20., 21., 22. eta 23. artikuluek behartutakoek aurkeztuko dute 720 eredia, atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruzko informazio aitorpenarena. Foru dekretu horrek finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen du, bai eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra ere. Zehatz-mehatz, honako egoera hautakoren batean daudenean aurkeztuko dute 720 eredia:

a) Apirilaren 28ko 10/2010 Legearen, kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrakoaren, 4.2 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, titular, ordezkari, baimendu, onuradun, erabiltzeko ahalmena duen pertsona edo erakunde edo benetako titular den aldetik, behartuta dagoenean atzerrian dauden finantza erakundeetako kontuen berri ematera, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, salbu eta artikulua horren 4. paragrafoan aratutakoetan.

b) Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 21.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan izanik artikulua horren 5. paragrafoan xedatutako salbuespenak, apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikulua arabera, honako hauen titular edo benetako titular direnean: atzerrian kokaturik dauden eta edozein motatako erakunde juridikoetako partaidetzaren adierazgarri diren balio edo eskubideena; atzerrian kokaturik dauden eta kapital propioak hirugarrenei lagatzearen adierazgarri diren balioena edo edozein tresna juridikori, kudeatu edo administratu ditzan, emandakoena, ondokoak barne direla: nortasun juridikorik eduki ez arren ekonomia trafikoan jardun ahal duten fideikomisoak eta "trust" edo ondare multzoak.

c) Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 21.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan izanik artikuluko horren 5. paragrafoan xedatutako salbuespenak, apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluko arabera, honako hauen titular edo benetako titular direnean: atzerrian kokaturik dauden inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare funtseko akzio eta partaidetzenak.

d) Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 21.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan izanik artikuluko horren 5. paragrafoan xedatutako salbuespenak, zergapekoa, abenduaren 31n, bizitza edo baliaezintasun aseguruaren hartzaile denean, baldin eta aseguru etxea atzerrian bada, edo zergapekoa, abenduaren 31n, atzerriko erakundeei dirua, eskubide ekonomikoak edo ondasun higigarriak edo higiezinak ematearen ondorioz biziarteko edo aldi baterako errenten onuradun denean.

Aseguru hartzailea ez bada errentaren onuraduna eta erreskate eskubideari eusten badio, hartzaile horrek aurkeztu beharko du 720 erredua.

e) Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan izanik artikuluko horren 6. paragrafoan xedatutako salbuespenak, apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zergapekoa atzerrian kokaturiko ondasun higiezinak eta ondasun higiezinak gaineko eskubideen titular edo benetako titulartzat hartua denean.

f) Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra eta atzerrian diren ondasun eta eskubideak jakinarazteko beharra arautzen duenaren, 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta kontuan izanik artikuluko horren 5. paragrafoan xedatutako salbuespenak, apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, zergapekoa honako hauen titular edo benetako titulartzat hartua denean:

a') Ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, horien unitate balioa 50.000,00 euro baino gehiago bada eta atzerrian badaude edo egon badira.

b') Ondasun higigarriak eta horien gaineko eskubideak, atzerrian badaude matrikulatuta edo erregistratuta."

Bi. "1. BALIOESPENA: ABENDUAREN 31KO SALDOA EDO BALIOA; IRAUNGITZE DATAKO SALDOA EDO BALIOA; ESKURAKETA BALIOA" eremuaren edukia aldatu da, 2 motako erregistroko (xehetasun erregistroa) 432tik 446ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 720 erreduko erregistro diseinuetan, honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
432-446	Alfanumerikoa	<p>1. BALIOESPENA: ABENDUAREN 31KO SALDOA EDO BALIOA; IRAUNGITZE DATAKO SALDOA EDO BALIOA; ESKURAKETA BALIOA</p> <p>Aitortutako ondasun eta eskubideen balioak adieraziko da, eurotan, edo haien kontrabalioa, dibisatan egindako eragiketetan. Halaber, aitortutako ondasun edo eskubidearekin loturiko hainbat partaide daudenean, zenbatekoa EZ da hainbanatuko.</p> <p>Eremu hau honela banaturik dago:</p> <p>432 ZEINUA Eremu alfabetikoa. Saldoa negatiboa bada, "N" idatzi behar da eta gainerako kasu guztietan eremu honen edukia zuriune bat izango da.</p> <p>433-446 ZENBATEKOA 14 posizioko eremua numerikoa. Saldoa adierazi behar da, koma hamartarrik gabe. Zenbatekoak EUROtan eman behar dira. Eremu honek bi atal ditu:</p> <p>433-444 Saldoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>445-446 Saldoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
432-446	Alfanumerikoa	<p>Eremu honetan jarri behar den zenbatekoa, "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" eremuan (102 posizioan) adierazitako balioaren arabera izango da:</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "C" baldin bada: abenduaren 31ko saldoa edo kontuaren titulartasuna, ordezkartza, baimena, xedatzeko ahalmena edo benetako titulatasuna iraugi edo amaitu den eguneko saldoa.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "V" baldin bada: abenduaren 31ko saldoa edo aitortutako titulartasunaren iraugitze datako saldoa.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "I" baldin bada: abenduaren 31ko edo aitortutako titulartasunaren edo benetako titulartasunaren iraugitze datako likidazio balioa.</p> <p>Balioespen hau martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergari buruzkoan, ezarritako arauen arabera eman behar da.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "S" baldin bada eta aitortutako "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "1" bada, abenduaren 31ko erreskate balioa adierazi behar da, edo abenduaren 31ko hornidura matematikoaren balioa, egun horretan hartzaileak erreskate eskubide osoa baliatzeko ahalmenik ez duen kasuetan (aldi baterako aseguruen kontratuak izan ezik, heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo arriskuko beste berme osagarri batzuk soilik biltzen baitituzte).</p> <p>"ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "2" baldin bada, aldi baterako edo bizi arteko errentaren abenduaren 31ko kapitalizazio balioa adieraziko da.</p> <p>Hala ere, errenta horiek bizi aseguru batetik badatoz, abenduaren 31ko erreskate balioa adieraziko da, edo abenduaren 31ko hornidura matematikoaren balioa, hartzaileak egun horretan erabateko erreskate eskubidea egikaritzeko ahalmenik ez duen kasuetan.</p> <p>Balioespen hau martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergari buruzkoan, ezarritako arauen arabera eman behar da.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "B" baldin bada eta "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "1" bada, ondasun higiezinaren eskuraketa balioa adieraziko da, ordaindutako zergak barne hartuta, hala dagokionean.</p> <p>"ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "2", "3" edo "4" bada, abenduaren 31ko balioa adierazi behar da, martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergari buruzkoan, ezarritako balioespen arauen arabera.</p> <p>Aitortutako zenbatekoak aitortuaren ekitaldiari buruzkoak dira, "B" "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA"ri eta "1" "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA"ri dagozkienak izan ezik.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "M" baldin bada eta "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "1" bada, ondasun higikorren eskuraketa balioa adieraziko da, ordaindutako zergak barne hartuta, hala dagokionean.</p> <p>"ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "2", edo "3" bada, abenduaren 31ko balioa adierazi behar da, martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergari buruzkoan, ezarritako balioespen arauen arabera.</p> <p>Aitortutako zenbatekoak aitortuaren ekitaldiari buruzkoak dira, "M" "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA"ri eta "1" "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA"ri dagozkienak izan ezik.</p> <p>– "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA" "R" baldin bada eta "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "1" bada, ondasun higikorren eskuraketa balioa adieraziko da, ordaindutako zergak barne hartuta, hala dagokionean.</p> <p>"ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA" (103 posizioa) "2", edo "3" bada, abenduaren 31ko balioa adierazi behar da, martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan, ondarearen gaineko zergari buruzkoan, ezarritako balioespen arauen arabera.</p> <p>Aitortutako zenbatekoak aitortuaren ekitaldiari buruzkoak dira, "R" "ONDASUN EDO ESKUBIDE MOTAREN GAKOA"ri eta "1" "ONDASUN EDO ESKUBIDEAREN AZPIGAKOA"ri dagozkienak izan ezik.</p>

## AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2023. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 11

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

*Ogasun zuzendaria*  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA